



Ongi etorri !

koldo amestoy, kondalari

Bere gaia bere herria da : ipuinaldian agertzen duena : Euskal Herriko kultura, hitz, kantu edo birpiztutako irudien bitartez dastatzera ematen dizuna...
Sorkuntza propioak, euskal mitologiaren inguruko kontaketak, ipuin eta kontakizun herrikoiak, guzi honek osatzen du bere errepertorioa...

“... Eta nire “ofiziale” biziko garai batean, nirea izango zen kontalari mundu propio bat asmatzea, eta nik nahi nuen gaurko euskal artistaren irudia poliki poliki moldatzea erabaki nuen. Hortarako, nire lehen urratsak gure euskal popularen jatorri aldera zuzendu behar izan nituen.

Euskal mitologia ahalik eta barnagotik miatuz, ahozko tradizioaren arrastoak jarraituz, kultur herriko bizian murgilduz, izadi eta ohizko paisaieri hurbilduz, eguneroko datu eta keinueri adi egonez,... dudarik gabe, izango zuen hor ni bezalako batek, zer aurkitu, hainbat “elikatze” eta gozatzeko !...

Orduan, euskal kulturari nire harritxoia ekarri behar niolako zordun sentitzen nintzaion : “ahozko kreaio berri” bat euskal herritarrei eskaini beharrez, bai eta, kanpoko publikoari ere zerbait ekarriz...”



Hainbat kreaioetan zehar,

bere ikerketen haria jarraituz, Euskal Herriko ipuin eta mitoen mundu hori ezagutzeko aukera ematen digu : Herensuge dragoia, Lamiak, Jentilak, Basajaunak, eta euskal mendietan dauden beste hainbat pertsonai laguntzaile, zuhur eta berezkoak erakutsiz ; atzoko beldur eta gaurko ametsen iturri diren harpe eta zulo sakonak aipatuz, ... euskal ahozko tradizioaren bahetik zehar iragan den “ipuin miresgarri” batera hurbilduz, mito berrien aldera egiten dituen eskapada gozagarriak ahantzi gabe....

Koldo bere ipuinaldian...

Koldo bere ipuin ikuskizunean barrena abiatuko delarik, ixtorioaren haria ongi

lotuta izango du, pertsonaiak abiatzeko prest, zuzeneko hitzari askatasun

guztia emango dion testua hor daukala ere esperoan...

Orain, espektakulua has daiteke.

Koldoren zat, kontatzea joko modu bat da : hitz jokoa, abotsarekilakoa, publikoarekin daukan harreman jolasa...

Bat-bateko ahotsak, kantu herrikoiak, olerki berriak, panderoarekin markatzen duen erritmoan guztiak dantzan ematen dituela.

Panderoa, taulatu gaineko bere lagun eta konplizea du, ipuinaren bizia eta kondalariaren kemena eta indarra bideratzeko erabiltzen duen musika tresna.

Harriola Marriola

Publiko nagusiarentzako ikuskizuna

Euskal Herrian kontatzen da, baizik eta, artzain batek mendi batean tontorrean aurkitu zuela behin harri zabal bat, belar gainean etzanik. Honen alde batean grabatuta zegoen : "Itzuliko nauenari ez zaio damutuko..."



Koldok harri berezi honen inguruan eraiki du bere ipuin ikuskizuna.

Harlauza azpian zer izan daitekeen galderari erantzun nahiz, lurpeko mundu barneraino eramaten gaitu. Mitologiako pertsonai eta mitoen aterbe, beldurren eta ametsen iturri, leize batean topatu ditzakegun atzoko eta gaurko altxor gela, gordeleku, babesgune... Hau guzia egiazkoa izan ala irudimenezkoa, berdin da.

Eta bidaia hau, lurgain hontako biziari begiradatxo bat emateko estakuru, aitzaki bat besterik ez balitz ? Harri lauza , miraila zabala edo ispilu trikimailua bilakatuko litzaiguke orduan !...

Iraupena : 70/75 mn

2001.ko udaran estreinatu ipuin ikuskizuna

Edukia : Euskalerriko mito eta kondairak, asmatutako ipuin eta kontakizunak, kantu eta musikak

Publikoa : jende nagusiari zuzendua

Prezioa : (soldata, kargu sozialak, bide eta ekoizpen gastuak barne) : **600 €**

Promoziarako materialeak : 2 argazki, eta 40 bat kartel dohainik

Ezenatoki eta teknika baldintzak : Teknika fitxa eskatu

Ekoizlea : DARIOLA Elkartea - Eihartzea Kultur Etxea – F. Jammes, 54 - 64240 HAZPARNE (Lapurdi)

Harremanak : tel. fax : 00 / 33 559 29 40 50 - e-posta : koldo.amestoy@wanadoo.fr - www.koldo-amestoy.com

Kontu Kantari

kontaketa, kantu eta musika

Koldo Amestoy : kondalari

Pantxix Bidart : musikari (kitarra), kantari

Publiko nagusiarentzako ikuskizuna

Ibarxolaz esaten da, ixtoriorik gabeko herria dela...



Baina, hurbilagotik begiratzeko badiogu, sekulako pertsonai arraroak topatu dezazkegu, beren abentura berezietan gaindi nahigabeen eraman gaitzaketeenak.

Oilar merkatari bat, eta gatu saltzaile bat, 113 logeletako hotel bat, golf bat bere 18 ziloekin... Kamioi gorri eta beltz handi bat, errepide bihurtuetsuegi batean, mendi

altu baten aurrean geraturik dagola... Honentzako ere, aldi honetan, "etxerako bidea laburrena" izango dela dirudi...

Hemen, mendiaren erresistentzia indarra... eta kirikiño edo sagarroiarena aipatzen ari gara.

Berantago, petzeroaren ametsa : moraltasunik ez, oldarraldirik ez... Kondalariak eta petzeroak ematen baitigute soilki, ametsaren ahaletaz bi gogoeta egiteko parada, besterik gabe.

"KONTU KANTARI" musika eta hitzaren bi unibertsoak topatzen diren ikuskizuna da. Bikote lana baino, bi artisten arteko joko bat da... Musika eta erritmoa ipuinean daudela, kantuan bezalaxe ; musika kontatzen hasten delarik, olerki bilakatzen baita...

Bere ipuinetan, Koldok beti uztartzen ditu bere sorkuntza propioa eta kontakizun herrikoia... Hitz salatario dauka, jendea aipatzen duena, izadia ere, eta erresistentzia modu bat oso berezia... Iñor enganatu ez duen modu arin eta xumean.

Musikariak bere aldetik, hitzaren indarra eta... isiltasunarena kantatzen digula...

Iraupena : 75/80 mn

2005.ko udaran estreinatu ipuin ikuskizuna

Edukia : Euskalerriko mito eta kondairak, asmatutako ipuin eta kontakizunak, kantu eta musikak

Publikoa : jende nagusiari zuzendua

Prezioa : (soldata, kargu sozialak, bide eta ekoizpen gastuak barne) : **1200 €**

Promoziorako materialeak : 2 argazki, eta 40 bat kartel dohainik

Ezenatoki eta teknika baldintzak : Teknika fitxa eskatu

Ekoizlea : DARIOLA Elkarte - Eihartzea Kultur Etxea – F. Jammes, 54 - 64240 HAZPARNE (Lapurdi)

Harremanak : tel. fax : 00 / 33 559 29 40 50 - e-posta : koldo.amestoy@wanadoo.fr - www.koldo-amestoy.com

07/10 edizioa

Koldo Amestoy, kondalari

Olabegia

Publiko zabalago batentzako kontaketa

Olabegia ? Ikusiak ikusirik eta entzunak entzunik, nolaz jakin dezakegu ba zutaz egia, Olabegia ?

Ibarxola baino gorago dagoen Olabegia etxera ez da iñoiz herritarrik hurbiltzen. Sasiek inguraturik daukaten eraikin ilun horretan bizi dira alta, eta bertan lan egiten, hiru anai : ikazkina bata, meatzaria bestea eta arotza hirugarrena. Ibarxolarrek, betitik sekulako kontaketa-montaketa bitxiak hedatzen dituzte Olabegikoak aipatzerakoan... Horkoek gordetzen dituzten sekretuetaz eta hauen inguruan dabilzan ustezko ixtorio-misterioetaz barra-barra ari direla...

Auzoaren etxea ilunegia iduritzen bazaizu eta auzokoa bera, doi bat itzalia, Segur izan zaitez, ez dizunez lanbro zerbaitek begirada estaltzen, eta zure baitako argia indargabetzen !...

... Eta holako gau ilargitsu batez Meatz eta Arotzek, burnizko barra luzea sorbalda ganean eta beste lau ttiki eskutartean, Ibarxolara jautsi ziren, herritarrei, lehen « tobera » eskaintzeko asmotan. Hortik aurrera, jende hauen arteko lehen juntaketak gertatzen hasi ziren, trukaketa moduan : Olabagikoek moldatu burdinkiak alde batetik eta Ibarxolarrek ekarri janari, edari eta hainbat puska bestetik. Biderditan, hortxe Munhoxolako ezki handiaren gerizapean...



Iraupena : 60/ 65 mn

2007.ko abenduan estreinatu ipuin ikuskizuna

Edukia : Euskalerriko ipuin eta kondairak, atzoko eta gaurko kontaketak, kantu eta musikak

Publikoa : 10/12 urtetik goragoko gaztetxo eta jende nagusiari zuzendua

Prezioa : (soldata, kargu sozialak, bide eta ekoizpen gastuak barne) : **600 €**

Promoziorako materialeak : 2 argazki, eta 40 bat kartel dohainik.

Ezenatoki eta teknika baldintzak : Teknika fitxa eskatu

Ekoizlea : DARIOLA Elkarte - Eihartzea Kultur Etxea – F. Jammes, 54 - 64240 HAZPARNE (Lapurdi)

Harremanak : tel. fax : 00 / 33 559 29 40 50 - e-posta : koldo.amestoy@wanadoo.fr - www.koldo-amestoy.com

Aneta Bokaleko

IKUSKIZUN BERRIA

estreinaldia : 2008.ko otsailaren 28-29

kontaketa, kantu eta musika
Publiko nagusiarentzako ikuskizuna

Koldo Amestoy : kondalari

Pantxix Bidart : musikari, kantari



Ikuskizun hau "Annette du Boucau" kondairaren inguruan moldatua da.

Aturri ibaiari, itsasoarena erantsita, horra hemen „itsasoaren gaiari“ loturik daukagun kontaketa bakarrenetariko bat.

„Bilintxen arrantza ontzian dago Aneta bere emaztea. Beraien haur ttikia bere besoetan lo, indar ezezagun batzuek gauaren gauean eramaten dituztela... Bidaiaren helmugan, ugarte bat, eta horko kobazulo baten sakonean ezkutaturik dago mareen sekretua. Bere semearen lainotasunak gerizaturik ezezagunetaraino“

Anetak abentura frango berezia biziko du, Aturri ertzetik urrutiko ugarte haren bazter ezezagunetaraino“

Ipuin harrigarri honen inguruan pizten dira eta agertzen hainbat kontakizun eta aipamen, ibaia, itsasoa, ugarte, eta bale ehizari loturikoak.

Bixintxo, Anetaren senarra da. Aturri ibaiko arrantzale dugu. Bere gogoak „ibaia“ agertu eta bizi araziko digu. Pirinioetatik jausten diren erreketako urek osatzen dutela, lurra eta itsas zabala elkarri josiko ditu, hainbat ahaleginen ondotik, bere neurriko ibaiahoa „urhandian“ trenkatuta.

Amaiur, Anetaren semea dugu, honen bularretako umea. Bere baitan dauka bale ehizaren memoria. Aitaren pinaza barnean, amaren besotartean kokatuta, bere gogo bidean emango du, balearrantzaleen uharatik kontaketa eta ixtorio-mixterio frango entzun araziko digula. Itsasoko bideetan, Aturritik Saint-Laurent ibaieraino, baten bokaletik bestearen ibaiahora, Ternuako „lur berrietaraino“...

Iraupena : 80 mn

2008.ko udaberian estreinatu ipuin ikuskizuna

Edukia : Euskal Herriko mito eta kondairak, Koldok asmatutako kontaketa eta poemak ; kantu herrikoiak edo olerkiak, Pantxixek musikatuak eta abestuak euskaraz, gaskoinez, ingelesez eta frantsesez. Idazle hauen poematarik hartuta : Kenneth White (Mendebaldeko atea), Aurelia Arkotxa, Martin de Hoyarzal, Johannes Etxeberry (balearrantzaleen otoitzak)

Publikoa : jende nagusiari zuzendua

Prezioa : (soldata, kargu sozialak, bide eta ekoizpen gastuak barne) : **1200 €**

Promoziorako materialeak : 2 argazki, eta 40 bat kartel dohainik

Ezenatoki eta teknika baldintzak : Argiztapen eta soinu teknika fitxak eskatu

ekoizlea : DARIOLA Elkarte - Eihartzea Kultur Etxea – F. Jammes, 54 - 64240 HAZPARNE (Lapurdi)

Harremanak : tel. fax : 00 / 33 559 29 40 50 - e-posta : koldo.amestoy@wanadoo.fr - www.koldo-amestoy.com

Koldo Amestoy, kondalari

Prentsan zehar

« Koldo Amestoirekin, mitoa eta erritoaren artean », Dantza ulergarri bilakatzearen aukeraz *pensatzen* hasi nintzenean, errito galduen aztarna gisa ulertua, Koldorekin batera lan egitea bururatu zitzaidan, gure dantza tradizionalen inguruan konzeptu berria bezain ikusgarria taxutzeko.

... Ipuin herrikoi eta mito galdu batzuk aukeratuta, bere ahotsak eta dohai dramatikoak gure kultur ondare alferrik galdua sinesgarritasunez bete dute ; dantzak hitzen arabera izan dira eraberrituak. Erritmoa, egitearen lehen adierazgarri bezala, hitzaren izaerari lotzen zaio...



Argia aldizkaria

...tradizioa gaurko irudietaraino goragotzen du. Esnatu bezain laster, euskal iratxoak dabilta, aurrera doan kultura honen bidexkatik.

Express magazine

Bere kontakizunetan zehar, hainbat pertsonai bereziek, irudi koloretsuek..., zaletasun bere hitzetan eta adierazpen bere keinuekin, ikusle bakoitza kondalariaren lagun min bilakatzeraino... ..

La Dépêche

... abotsa - ez, abotsak - keinua, eta gero bere panderoa, behin "ixilka" hitzak eztiki lagunduz, gero "zalapartaka" ekintza indartuz.

... gaitasun zorrotz bat, maisutasun handiko eraketa bat, gozamina! **Nouvelles de Monclar**

... Koldo Amestoyen mundu hori ezagutu beharra dago. Bere herriko ixtorio zaharrak bereganaturik, gaurko gure mundura pasarazten ditu, honen bihurrikeriak hitzez eta agudeziaz salatzekeo...

Ouest-France

Otso beltz handiaren suzko begiak, gizon oilardunaren herrira heltzea..., hitz batzu aski dira, keinu adierazgarri batzuez horniturik, kondalariak bere publikoa zoramen sakon batean murgildu dezan.

Le Dauphiné Libéré

Koldok giro bereziak berpizten ditu, baselizaren hormek indartzen dituztela, oihan mineral batek bezala. 70 minutuz, publikorik ez da, entzuten egoten da, osoki harrapatua, bukaerak ixtorioaren hari gainean hortxe utziko duen arte.

Ouest-France

Eszena tokian, Koldo tente dago, atzeratik aurrera ibiliz. Taulagain antolaketa berezirik ez dauka, baina beti dago (ipuinaren) barruan izateko gogoz, publikoarekin bat egiteko asmoz. Irudiak erakutsiz, hari batekin, erritmo batean, arnasa batean, pista batzu jarraituz, sekula galdu gabe...

Trad Mag

Koldo Amestoy, kondalari-bakarlari gisa datorrelarik,

GUTXIENeko BALDINTZAK

Antzoki(txo) bat bazenute, ondo !

Foko eta megafonia teknika osoa bertan balitz, hobeto ! **Bestela** :

IKUSKIZUN GELA

- gela egokiena, ahaliketa "karratuena", handiegia ere ez,
- alkiak, erdi-borobilean eta hurbil, gure erara jartzeko gisan,
- osoki **iluntzeko** modukoa (fokoak ematea erabakitzen bada) bestela tokiko argi natural edo artifizialarekin egin daiteke.
- ezenatokia, **60 jende baino gehiago** espero bada, **4,00 m x 2,00 m zabalera** eta, lurretik **25 edo 30 zm gorakoa**.
- ezenatoki atzekaldean, **tela zabala**, beltz edo iluna, zintzilikaturik,

ARGI ETA FOKOAK

- antzoki batean, espektakulu edo jaietako gela egoki batean, **foko batzu beharko** dira jarri (ikusitako Argi Teknika fitxak)
- gela handiegia ez bada, kondalariak bere fokotxoak ekarriko lituzke,

MEGAFONIA

- **100 bat jende** baino gehiago espero balira, megafonia ekipo ttiki bat gelan bertan montatua beharko litzateke (kondalariak bere aldetik, mikrofono-kasko inalanbrikoa eta bere errezeptorea ekarriko luke.)

GELA (barruan eta inguruan) :

ikuskitako denbora osoan, isiltasuna eta bakea,

KATXETA dela eta, jakin behar da prezio horren barruan daudela beti : artistaren **soldata, kargu sozialak, ekoizpen eta bide gastuak**. (DARIOLA elkartearen faktura (elkartea, BEZ, IVA edo TVAtik "exento" eta kanpo dago), elkarte honen langile denez, kondalariak antolatzaileari ekarriko dio)

DATU BATZUK

DARIOLA elkartea – Eihartzea Kultur Etxea - Francis Jammes karrika, 54 – 64240 HAZPARNE / HASPARREN – SIRET zbk./CIF : **421 981 937 00012**

Bankuko datuak :

Euskadiko Kutxa / Irun Colón -Kontu zbk : 3035 0059 81 0591078509

Koldo Amestoy, kondalariaren bidetik

- 2005** – ipuina eta musika **Kontu Kantari** - ipuin, kantu eta musika - ikuskizuna, Pantxix Bidart kantari-musikariarekin plazaratua
- 2003** – ipuina eta musika **Urrezko Ereinotza** - Cantate profanoa, orkestra eta kondalariak emanik. Peio Zabaleta konpositorearekin lantua, 2003.ko maiatzaren 17 eta 18an, Baionako Antzokian, Baiona eta Euskal kostaldeko orkestrarekin batera aurkeztutako obra
- 2002 eta 2001**
ipuina eta musika **Dragoiaren ametsa** eta **Haritza – zuhaitzen ibilaldi luzea**, bi sorkuntza kolektibo
Euskal herri, Kortsika eta Katalandar kondalari, hainbat kantari eta musikariarekin aurkeztuak
- 2001** – ipuina **Harriola Marriola** ipuin ikuskizuna estreinatzea
- 2000** – ipuina eta kantua **Maribil** ipuin eta kantu ikuskizuna, **Maddi Oihenart**-ekin plazaratua
- 1998** – ipuina eta arkitektura **Zaldi Xurito**, zazpi etxe bizitza, eraikitzaile bat, bi arkitektu, margolari bat eta kondalaria, orotara, kondaira berri bat, Ziburuko auzo batentzat asmatua
- 1998 – 2002**
ipuina eta dantza **Kond'harian, Juan Antonio Urbeltz** koreografoarekin, 60 dantzari herrikoi eta garaikide eta 10 musikarikin aurkeztu ikuskizuna
- 1997 - 2000**
ipuina eta musika **Bilintx** (itsas munduaz ikuskizuna), **Pascal Gaigne** musikariarekin estreinatzea
- 1996 – 1998** – Aholkulari **Hitzemana** – Biarritzeko ipuin festibalean aholkulari – "Biarritz- Culture" antolatzaile
- 1994** –
ipuina, olerkia eta kantua **Atahualpa Yupanqui** olerkari-kantariari omenaldian, **Pariseko Olympia** aretoan, ipuin kondalari eta espektakulu gidari – Antolatzaile : Intxauseta elkarte
- 1994** - ipuina, olerkia eta kantua **Manex Erdozaintzi Etxart gogoan**. Olerkariari omenez, kantari eta musikari artistekin batera, ipuin kondalari eta ikuskizun gidari, **Donapaleuko** Frantxixkanoetan
- 1994** – ipuina eta musika **Apanize** ikuskizuna, **Pascal Gaigne** musikariarekin
- 1992** – Diskoa **Behin Bazen, Bixente Martinezekin** eta **Oskorriko** kantari eta musikariak lagundurik, eukal herriko ipuin sorta grabatzea
- 1992** – ipuina **Ibarxola** ipuin ikuskizuna estreinatzea
- 1991** – ipuina eta kantua **Hiru Uhainak** ipuin eta kantu ikuskaria, **Beñat Achiary** kantaria, **Mikel Anjel Lertxundi** eskultore eta ezenografoarekin batera
- 1984 – 1991** – ipuina **Hainbat ipuin ikuskizun** agertu eta eskaintzen, haur eta publiko nagusiari, Euskal Herrian zehar
- 1983** – ipuin eta beste **Herrialka Tiki Taka** – 1983.ko maiatz eta ekaina . Ibilaldi artistikoa, zortzi herritan zehar, Biarnotik euskal kostaldera, zazpi asto eta hainbat kantari, musikari, margolari, olerkari eta argazkilariekin (**Beñat Achiary, Amaia Zubiria, Eñaut Larralde, Imanol, Pascal Gaigne, Manex Lanatua,...**) **Ane Atoll** elkarte antolatzaile.
- 1983** – ipuin kondalaritzan, profesional bidetik abiatzea.